

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko maiatzaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 2021eko udal-aurrekontuaren laugarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 2.- 2022ko lehen hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 3.- 2022ko udal-aurrekontuaren lehen hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea

- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 8/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 9/2022 zenbakidun kreditu aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 6.- Onartzea, egoki bada, 2/2022 zenbakidun konpromiso-kreditua.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Oriko 2023ko jaieguna.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udaleko II. Berdintasun Plana.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Antilla hondartzan itsas-lehorreko jabari publikoko lurak okupatzeko kontzesioa aldatu ahal izateko baldintzak eta preskripzioak. Kontzesioa Oriko Antilla hondartzaren ekialdeko muturrean bainu-kabinetarako eraikin bat eraikitzeko eman zitzaion Udalari 1965eko abenduaren 10eko ministro-agindu bidez, eta 2020ko martxoaren 11ko ministro-agindu bidez aldatu eta luzatu zen.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Oriko EH Bildu talde politikoak kirol-portuei buruz aurkeztutako mozioa.
- 11.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2021EKO UDAL-AURREKONTUAREN LAUGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

2.- 2022KO LEHEN HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.-2022KO UDAL-AURREKONTUAREN LEHEN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 8/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean eginga dago eta 25.229 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 8/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean eginga dago eta 25.229 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 9/2022 ZENBAKIDUN KREDITU ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2022 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 482.600 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**

ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 9/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 482.600 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2/2022 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 2/2022 zenbakidun konpromiso-kredituak 83.226 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 2/2022 zenbakidun konpromiso-kredituari. Konpromiso-kredituak 83.226 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailetza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era). Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

d) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, konpromiso-kredituaren espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 2023KO JAIEGUNA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasun- eta pertsonal-batzordeak, 2022ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, diktaminatu du Orioko 2023ko jaieguna ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko 2023ko jaieguna hau izatea: ekainaren 29a, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta erreuperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren maiatzaren 3ko 56/2022 dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2023. urterako.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO II. BERDINTASUN PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gizarte-ongizate eta berdintasun-batzordeak 2022ko maiatzaren 9an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Udaleko II. Berdintasun Plana.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, Gizarte-ongizate eta berdintasun-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du onartu berri den berdintasun-plana PERTZETIK elkarteak 2019an egindako diagnosiaren emaitza dela, eta diagnosi hartan ondorioztatzen zela Orio herri matxista dela. Diagnosi haren ostean etorri den lanketa Ahalduntze Eskolak bideratu du, Emakunderen dirulaguntzaz, eta lanketa horren fruitu da Orioko Udaleko II. Berdintasun Plan hau.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ANTILLA HONDARTZAN ITSAS-LEHORREKO JABARI PUBLIKOKO LURRAK OKUPATZEKO KONTZESIOA ALDATU AHAL IZATEKO BALDINTZAK ETA PRESKRIPZIOAK. KONTZESIOA ORIOKO ANTILLA HONDARTZAREN EKIALDEKO MUTURREAN BAINU-KABINETARAKO ERAIKIN BAT ERAIKITZEKO EMAN ZITZAION UDALARI 1965EKO ABENDUAREN 10EKO MINISTRO-AGINDU BIDEZ, ETA 2020KO MARTXOAREN 11KO MINISTRO-AGINDU BIDEZ ALDATU ETA LUZATU ZEN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ingurumen, obra eta zerbitzuen batzordeak 2022ko maiatzaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Antilla hondartzan itsas-lehorreko jabari publikoko lurra okupatzeko kontzesioa aldatu ahal izateko baldintzak eta preskripzioak. Kontzesioa Orioko Antilla hondartzaren ekialdeko muturrean bainu-kabinetarako eraikin bat eraikitzeke eman zitzaion Udalari 1965eko abenduaren 10eko ministro-agindu bidez, eta 2020ko martxoaren 11ko ministro-agindu bidez aldatu eta luzatu zen. Onartzen den aldaketa hau da: gas naturala kanalizatzea eta gas-galdara bat instalatzea, kabinak ur beroz hornitzeko. Ministerioaren aipatutako agindu horietan ezarritako baldintza eta preskripzioen mende egongo da kontzesioa, eta horiei gehituko zaizkie Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusiak 2022ko maiatzaren 13an emandako Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzak.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, eta adierazten du onartu berri dena tramite administratibo huts bat dela, egin beharreko jarduketa itsas-lehorreko jabari publikoan kokatzen delako; alegia, kostaldeko eta itsasoko eremuan. Orioko Antilla hondartzako kabinak ur beroz hornitzea du helburu jarduketak eta, horretarako, gas naturala kanalizatu eta gas-galdara bat instalatuko da.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EH BILDU TALDE POLITIKOAK KIROL-PORTUEI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:

Ekonomia Garapen eta Azpiegiturako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko 5330 aginduak, laket ontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautu zituen. Baita bere aplikazio eremua.

Data horretatik aurrera euskal kostaldeko hainbat portuetako amarralekuen emakida prozedurak ireki dira. Azkenak Donostia eta Plentziakoak izan dira eta datozen hilabeteetan beste hainbatetan ere prozedurak irekiko direla aurre ikusten da.

2017ko urriaren 19ko aginduak arauz kanpoko egoera bat erregularizatu, eguneratu eta amarralekuak erabiltzeko baimena emateko prozedurak arautzea xede bazuen ere, herri guztietan kezka eta egonezina sortu da. Horren adibide dira egon diren salaketa judizialak edota tokian-tokiko erakundeek herritarrengatik jaso dituzten iritzi eta babes eskaerak.

Udalei aditzera eman zaienaren arabera, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aginduak herritarrengan ekarri duen ezinegonaren iturburua 2017ko urriaren 19ko 5330 aginduen 14. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideetan dago besteak beste. Zuzenago esanda, zehaztu ez diren esleipen-irizpideetan. Bereziki ontziaren neurri zehatzak eta amarralekuko fingerrak dira aintzat hartu diren irizpideak eta berdinketa egonez gero, zozketa izango da banaketa erabakiko duena. Hau da, agindu honen zehaztasun ezak kostako herriek itsasoarekiko eta honekiko lotura kultural, historiko guztia ez ditu aintzat hartu.

Bistan da ordea, azken urteetan kirol-portuak sustatu eta kirol-nabigazioa biziberritzeko aurrera eraman den egitasmoak desoreka bat sortu duela kostaldeko herri askotan. Aisialdirako ontzi flota handia, goruntz doan eskaera amaigabea... portuetako errealtatea guztiz aldatuz joan da. Kasurik lazgarrienean gainera, arrantza-portu izatetik kirol-portu izatera igaro arte.

EKPko portuen inguruetan gauden Udalen nahia, herritarrak agertzen ari diren egoeraz jabeturik, irtenbidea bilatzen saiatzea da. Izan ere, herritarrak / portuak gure historiaren, gure kulturaren eta gure nortasunaren parte dira. Gure herriaren historian Herria – portua elkar-emanda egon diren bizitokiak izan baitira, eta etorkizunean ere horrela izatea nahi baitugu.

Hau guztia kontuan hartuz, Orioko udalari ondorengoa babestea eskatzen diogu:

- Portuak, gure nortasuna, eta beraz, ondarea, materiala nahiz immaterial moduan, aitortuak izatea.*
- Errekonozimendutik haratago, mendeetan zehar gure herritarren bizimoduaren parte izan diren portua, eta portuko zerbitzuak, herritarren onurarako izatea.*

- *EKPri eskatzen zaio 5330 dekretuaren lanketa eta egokitzapena egiteko, EKPko portuak kokatzen diren udalerrri eta bertako eragileekin batera egitea, ekainaren 28ko 2/2018 Euskal Autonomia erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren legearen I. Kapituluko 4. Artikuluan xehatuta dagoen bezala Portuko Udal Batzordea sortuz.*
- *Horrekin batera, 2017ko urriaren 19ko 5330 dekretuan aldatetako egiten hastea. Itsas kostako ondare materiala eta immateriala berreskuratu edo kontserbatzen duten ontziak lehenetsiz eta aginduaren 14. Artikuluaren idazketan, bertako herritarrek izan beharko luketen lehentasuna kontuan hartuz. Horretarako besteak beste ondorengo puntuak dekretuko 14. Puntuan barne biltzea lehenetsiz hurrenez hurren:*
 - *Portua aurkitzen den herrian erroldatuta dauden herritarrak (errolda zaharrena dutenak lehenik eta gutxienez herrian urte bateko errolda duenak).*
 - *Portua aurkitzen den eskualdeko herrietan erroldatuta daudenak (gutxienez urte bete).*
 - *EAEko beste herrietan erroldatuta daudenak (gutxienez urte bete).*
 - *Beste autonomia erkidegoetan erroldatuta daudenak (gutxienez urte bete).*
- *EKPri eskatzen zaio dekretuaren lanketa eta egokitzapena egiteko gardentasun eta transparentzia irizpideak oinarri izatea eta EKPko portuak kokatzen diren udalerriekin elkarlanean egitea.*

Udalbatzarrak hartutako erabakiaren berri Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuari eta Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei helaraziko zaie

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Kontrako botoak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieta (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Orioko EH Bildu talde politikoak kirol-portuei buruz aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du amarralekuen zozketa oraindik ez dela egin Orioko kirol-portuan, eta hori hamabost urtean behin egiten dela.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, honako arrazoiengatik:

- Bere talde politikoa bat dator mozioaren erabakien zatiko 1. eta 2. atalekin, baina uste du mozioa oso orokorra dela, eta ez duela kontuan hartzen Orioko kirol-portuaren errealitatea; alegia, Orioko kirol-portua eraiki berria dela, eta ez dela ondare material edo immateriala.
- Mozioaren 3. atala legez kontrakoa da erabat, eta gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiak xedatzen duenaren aurka doa.
- Mozioaren 4. atalari dagokionez, Lourdes Salsamendi zinegotziak adierazten du Eusko Jaurlaritzak lanean jarraitzen duela arlo horretan, konponbideak bilatzeko alderdi soziala kontuan hartuta.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, azken batean, EH Bildu talde politikoak kirol-portuei buruz aurkeztutako mozioaren bidez lortu nahi duena hauxe dela: elkarrizketak abiatzea Eusko Jaurlaritzaren, Orioko Udalaren eta inplikaturako oriotarren artean.

11.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,